

Quique Gonzalez, Andres Suarez, Kuttune eta Julie Rouault izango dira “Kontzertuan eta irekita” zikloaren edizio berriko protagonistak, Santa Maria Katedralean

Musika-hitzorduak uztailean (uztailak 17 eta 18) eta irailean (irailak 4 eta 5) izango dira Elizpean, 20:00etatik aurrera.

Lau gauetan egile-abestiak izango dira Quique Gonzalez eta Andres Suarezekin eta Kuttune eta Julie Rouaulten egungo sustrai-musika.

Publiko orokorrak www.kontzertuanetairekita.eus web gunean erosi ahal izango ditu abonamenduak gaurtik (maiatzak 28, osteguna) aurrera, eta kontzertu bakoitzerako sarrerak ekainaren 22tik aurrera.

Gasteizen, 2026ko maiatzaren 28an. Santa Maria Katedrala Fundazioak gaur goizean aurkeztu du “Kontzertuan eta irekita” musika-zikloaren edizio berria. Programa artistikoa **Santa Maria Katedraleko** Elizpean egiten da, eta Vitoria-Gasteizko agendan ezinbestekoa den proposamena, hiriarentzat erakarpen kulturala izateaz gain, urtez urte biltzen den jende-kopuruak erakusten duen moduan. Era berean, **Katedrala Fundazioaren** apustua eta konpromisoa da, eta horren kolaboratzaile nagusia **Vital Fundazioa** da.

Ekimena aurkezteko ekitaldia gaur goizean egin dute Santa Mariako Elizpean, eta, bertan, honako hauek izan dira: **Ana del Val**, Arabako Foru Aldundiko Kulturako diputatua; **Sonia Diaz de Corcuera**, Vitoria-Gasteizko Udaleko Kultura eta Hezkuntza zinegotzia; **Arantxa Ibañez de Opacua**, Vital Fundazioko zuzendaria; eta **Jon Lasa**, Santa Maria Katedrala Fundazioko kudeatzailea. Bertan izan da, baita ere, **Gustavo Muñoz**, Jazzargia Elkarteko arduraduna, “Kontzertuan eta irekita” ekimenaren antolaketan laguntzen duena.

2026KO PROGRAMA

Aurten, kontzertuak uztailaren 17an eta 18an (asteburua) eta irailaren 4an eta 5ean izango dira. Katedraleko Elizpean egingo dira, eta 20:00etan hasiko dira. Besteak beste, **Quique Gonzalez, Andres Suarez, Kuttune eta Julie Rouault** izango dira gure artean.

Enrique Gonzalez Morales, **Quique Gonzalez**, Espainian ezinbesteko kantautorea da. Madrileko abeslariak ibilbide sendoa eta koherentea eraiki du bi hamarkadatik gorako denboraldian, haren letren zintzotasunak eta konposizioen dotoretasunak markatuta. Amerikako sustriak dituen rockaren eta egile-kantaren arteko musika egunerokotasuna eta emozioak sentsibiltate paregabearekin aztertzen dituen narratibak nabarmentzen du.

Ahots nahastezinarekin eta zuzeneko hurbilarekin, haren kontzertuek konplizitate handia sortzen dute. Santa Maria Katedralean, haren proposamenak esperientzia benetan hunkigarria eta inguratzailea izatea agintzen du.



Uztailak 17, ostirala
20:00

Andres Suarez egile-abesti garaikidearen figura nabarmena da, eta leku propioa bereganatzea lortu du konposizioen intentsitate emozionalari eta ñabarduraz betetako ahotsari esker. Galiziako musikariak publikoarekiko hurbiltasunetik eraiki du ibilbidea, eta letra zintzoak erabiltzen ditu maitasuna, zalantzak eta bizipen pertsonalak zuzeneko sentiberatasunaren bidez aztertzeko.

Zuzenean, ikusleekin berehala konektatzeagatik nabarmentzen da. Santa Maria Katedralean, haren kontzertuak esperientzia inguratzailea izatea agintzen du, abestien berotasuna espazioaren berezitasunarekin lotuaz.



Uztailak 18, larunbata
20:00

Kuttune soinu-aberastasun handiko proiektu kolektiboa izateaz gain, gaur egungo sustrai-musikaren proposamen berezietako bat da. Nerea Quincoces perkusio-jotzaile eta abeslariak zuzentzen du, eta hainbat musikari biltzen ditu tradizioa, ikerketa eta sorkuntza propioa uztartzen dituen talde batean. Musikak euskal eta iberiar folklorea ditu abiapuntu, eta Afrika Mendebaldeko, Ekialde Ertaineko eta Latinoamerikako eraginetara zabaltzen da. Emaizta soinu organikoa eta artisaua da, eta antzinako kantu eta erritmoak berreskuratzen ditu, gaur egungo begirada pertsonaletik berrinterpretatzeko.



Irailak 4, ostirala
20:00

FUNDACIÓN CATEDRAL SANTA MARÍA KATEDRALA FUNDAZIOA

Cuchillería, 93 · 01001 Vitoria-Gasteiz · / www.catedralvitoria.eus

Prentsa / Prensa: Elena Benito - T. +34 94 403 40 50 - Ext.: 2501 - comunicacion@atedralvitoria.eus

DFA: Carmen Gómez Preciado – mcgomez@araba.eus - 945 18 18 41 – araba.eus

Julie Rouault sentiberatasun handiko abeslari eta konpositoreak fintasunak, introspekzioak eta soinu-giro zainduak markatutako proposamena garatzen du. Haren musika folk garaikidearen eta chanson-aren artekoa da, eta ahotsa eta emozioa nagusi dituzten paisaia intimoak sortzen ditu.

Baionako abeslariak euskaraz eta frantsesez abesten du, eta erreperitorioak dimentsio kultural berezia eta ñabarduraz beteriko unibertsoa eskaintzen ditu. Interpretazio sotil eta inguratzailearekin, kontzertuek adi entzutera gonbidatzen dute, eta, horrela, esperientzia dotorea, hurbilekoa eta denboran ia etenda dagoena sortzen da.



Irailak 5, larunbata
20:00

SARRERAK ETA ABONAMENDUAK

Lau kontzertuetarako **abonuak** gaur, maiatzak 28, jarriko dira salgai 50 €-ren truke. Ekainaren 22tik aurrera (astelehena) ere kontzertuetarako **sarrerak** erosi ahal izango dira. Publiko orokorrak 20 €-ren truke erosi ahal izango ditu sarrerak Quique Gonzalezen eta Andres Suarezzen kontzertuetarako eta 12 €-ren truke Kuttuneren eta Julie Rouaulten musika-hitzorduetarako.

Musika-gau horietarako abonamenduak eta sarrerak www.kontzertuanetairekita.eus web gunean erosi daitezke.

Fundatzaileen Zirkuluko bazkideek beren sarrerak eta abonamenduak erosi ahal izango dituzte gaurtik hasita plaza-kopurua bete arte %25eko deskontuarekin. Kasu horretan, salmenta Katedraleko Bisitarien Zentroan bakarrik egingo da (Santa Maria Izkina, 3) eta 945 255135 telefonora deituta.

FUNDACIÓN CATEDRAL SANTA MARÍA KATEDRALA FUNDAZIOA

Cuchillería, 93 · 01001 Vitoria-Gasteiz · / www.catedralvitoria.eus

Prentsa / Prensa: Elena Benito - T. +34 94 403 40 50 - Ext.: 2501 - comunicacion@catedralvitoria.eus

DFA: Carmen Gómez Preciado – mcgomez@araba.eus - 945 18 18 41 – araba.eus

Las personas socias del **Círculo de Fundadores** podrán adquirir sus entradas y abonos desde hoy hasta completar aforo con un 25% de descuento. En este caso la venta será exclusivamente en el Centro de Visitantes de la catedral (Cantón de Santa María, 3) y en el teléfono 945 255135.